

 Eustat Besaide 3	Business Cycle Tracer (BCT)		Bertsioa / Versión: 1	
	ERABILERAREN GIDALIBURUA MANUAL DE USO		Data / Fecha: 2017/07/28	1/8


INDIZEA

1. SARRERA	2
2. HAUTATZE-AUKERAK	3
3. BESTE BISTARATZE-AUKERA BATZUK	4
4. ANIMAZIO-AUKERAK	5
5. HAUTATUTAKO ADIERAZLEAREN BILAKAERA	6
6. BISTARATZE-URTEA ALDATZEA	6
7. TEKNIKA	7
8. SARRERA-FITXATEGIEN EGITURA	8

1. SARRERA

Business Cycle Tracer grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren bilakaera ezagutzeko tresna bat da.

Irudikatze-sistema honetan hainbat indizeren eboluzioa erakusten da; adibidez, handizkako merkataritza eta txikizkako merkataritza, barne-produktu gordina, esportazioak eta inportazioak, kontsumo-ondasunen ekoizpena eta abar.



Tresna honen bitartez 13 adierazleren lurralde guztietako 1989tik 2015era bitarteko datu ekonomikoak bistara daitezke, honako osagai eta aukera hauek direla medio:

Pantailaren goiko aldean hauek ageri dira:

- BCT grafikoa (ezkerreko aldean) lau koloretan banatuta dago ekonomiaren egoera irudikatzeko, eta zenbait sinbolo ageri dira, adierazleak eta lurraldeak irudikatzen dituztenak.
- Grafikoaren goiko aldeko legenda, lurraldeak hautatzeko erabiltzen dena.
- Adierazleen legenda (eskuineko aldean). Legenda horretan agertzen dira grafikoan erakutsiko diren adierazleak, eta horiei buruzko informazio gehiago ematen duten tauletara sar daitezke.

Beheko aldean:

- Kontrol-botoiak (ezkerreko aldean), grafikoa animatu ahal izateko, eta beste aukera batzuk.

- Lerro-grafikoa (eskuineko aldean). Adierazleen zikloaren joeraren desbideratze tipikoa erakusten du.


2. HAUTATZE-AUKERAK

Honako aukera hauek zuzenean islatzen dira bai mapan bai lerro- eta banaketa-diagrametan:

- Hautatu eremu geografikoa.
- Hautatu bistaratzearen adierazlea.


Hautatu eremu geografikoa

Pantailaren goiko aldeko lehen "spinner" edo hautatzailearen bitartez eremu geografikoa hauta daiteke. Egindako hautapenak zuzenean islatuko dira bistaratzearen osagai interaktibo guztietan, hau da, BCT grafikoan eta lerro-diagraman.



Hautatu adierazlea

Eskuinaldean, adierazleak hautatzeko zonan, BCT grafikoan erakutsiko diren adierazleak hautatzeaz gainera, aldatu egin daiteke seriearen buruan erakutsi beharreko forma adierazle bakoitzerako, bai eta kolorea ere, adierazle bakoitzaren lurralde bakoitzerako (seriea).



Aldaketa egiteko, klik egin behar da eremu geografikoa adierazten duen ikonoan, adierazlearen ezkerrean.

Adierazleak ☐ Hautatu adierazle guztiak


E A B G

☒ Industri produkzioaren indizea
☐ Kontsumo-ondasunen produkzioa

Agertuko den editorean aldatu egin daitezke bai adierazlearen forma bai lurrealdearen kolorea.




Egindako hautapenak lerro-diagraman ere islatzen dira, beheko irudian ikus daitekeen moduan:



3. BESTE BISTARATZE-AUKERA BATZUK

Bistaratzek beste aukera batzuk eskaintzen ditu, hala nola:


- Gehitu zooma mapari. Horretarako, maparen beheko aldeko + eta - botoiak eskaintzen dira (ikus hurrengo irudiko A aukera).
- Hautatu traza bistaratuko den ala ez.
- Hautatu trazaren luzera.



4. ANIMAZIO-AUKERAK

Botoi batzuek eta abiadura-kontrol lerragarriak osatzen dute animazioaren atala.

- Botoiak
 - Erreproduzitu/Eten. Hainbat urtetako datuen hurrenez hurreneko erreprodukzioa abiarazteko edo eteteko.
 - Errepikatu. Aukera honen bitartez berriro has daiteke animazioaren erreprodukzioa azken urtera iritsitakoan.
- Abiadura-kontrol lerragarria. Erreprodukzio-abiadura finkatzeko erabil daitekeen barra.



5. HAUTATUTAKO ADIERAZLEAREN BILAKAERA

Lerro-diagrama, hautatutako serieen ziklo-joeren desbideratzea irudikatzen duena Hodrick-Prescott joeraren aldean.

Kurtsorea puntu batera hurbiltzean informazio-taula bat bistaratzen da, irudikatutako serie guztiek puntu horretan hartzen dituzten balioak dakartzana.

Hautatutako adierazlearen bilakaera erakustez gainera, bistaratze-urtea finkatzea ahalbidetzen du (ikus hurrengo atala).




6. BISTARATZE-URTEA ALDATZEA

Bistaratzeko urtea aldatzeko bi modu daude:

- Maparen azpian dagoen kontrol lerragarriaren bidez. Barra eskuinerantz edo ezkerrerrantz mugituta, urteak aurrera edo atzera doaz, hurrenez hurren.
- Hautatutako adierazlearen bilakaera erakusten duen lerro-diagramaren bidez. Horretarako klik egin behar da kurtsorea grafikora hurbiltzen denean agertzen den barra berdean.

Bi kasuetan, beste urte batera aldatzean urte horri dagozkion datuak bistaratzen dira.



7. TEKNIKA

Tresna honek jqPlot liburutegiak erabiltzen ditu hurrenez hurren grafikoak sortzeko eta mapa sortzeko. JavaScript erabiltzeak interaktibotasuna ahalbidetzen du; beraz, JavaScript-en aukera gaituta eduki behar da nabigatzailean.

Plataforma anitzekoa da. Beraz, bistaratu daiteke bai Android eta iOS-en zein arakatzailerik ezagunenetan (Internet Explorer 9+, Firefox, Google Chrome, Safari, Opera).

Prozesua gehiegi luzatzen bada, gomendatzen da beste nabigatzaile bat erabiltzea, Google Chrome, esaterako.

 Eustat Besaide 3	Business Cycle Tracer (BCT)		Bertsioa / Versión: 1	
	ERABILERAREN GIDALIBURUA MANUAL DE USO		Data / Fecha: 2017/07/28	8/8

8. SARRERA-FITXATEGIEN EGITURA

Eskuragarri dauden fitxategiak karpeta ezberdinetan sailkatu dira: javascript fitxategiak (.js), estilo fitxategiak (.css), irudi fitxategiak (.gif,.png), datuen fitxategiak (.json) eta laguntza fitxategiak (.html).

Eustateko web orrian **multilenguaje.js** erabiltzen da grafikoan ikusten diren testuen hizkuntza zehazteko, adierazleak eta eremu geografikoak barne, baina eskuragarri dagoen kodean testuaren hizkuntza zuzenean dago hizkuntza bakoitzeko fitxategietan: Business Cycle Tracer.html eta Business Cycle Tracer_e.html.

Ikusten diren adierazleen eta eremu geografikoen kopurua ezin da aldatu automatikoki.

Grafikoak irudikatzen dituzten datuak hurrengo json fitxategietan gordetzen dira:

- **puntos.json.** Ziklo joera grafikoan (erdikoan) ikusten diren X eta Y datuak gordetzen dira. Adierazle eta eremu geografiko bakoitzeko balio pareak dituen array bat da, Euskadi AE, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa 13 adierazleentzat.

```
//Datuen urte handiena
var maxAnno = 2018;
//Lurralde historikoan datua duten adierazleak
var aDisponible = ["1", "0", "0", "0", "1", "1", "1", "0", "0", "0", "1", "1", "0"];
// X ardatzan balio handiena (balorea eta laukiaren marra artean dagoen aldea)
var maxEscalaX2d = 5;
// X ardatzan balio txikiena (balorea eta laukiaren marra artean dagoen aldea)
var minEscalaX2d = -5;
// Y ardatzan balio handiena (balorea eta laukiaren marra artean dagoen aldea)
var maxEscalaY2d = 3.20951164304586;
// Y ardatzan balio txikiena (balorea eta laukiaren marra artean dagoen aldea)
var minEscalaY2d = -3.20951164304586;
//???
var multiT = [1, 1, 1, 1, 3, 3, 3, 3, 3, 3, 3, 3, 3];
//Balore pareak array bat eremu bakoitzeko
var eaepunt1 = [ [0,-1.72245262524444], [0.9425621058042120,-1.57488738031834]]
var arabpunt1 = [ [0,-1.71364071738633], [2.08332005146872,-1.42099286637052]]
var bizkpunt1 = [ [0,-1.76942557291768], [0.4632984893141680,-1.70103527706581]]
var gippunt1 = [ [0,-1.52751082494989], [0.8553167950802410,-1.38757293396489]]
```

```
Adierazlea lurraldeka baloreak ez baditu ere array baloreak hutsik ipini behar dira.
var arabpunt2 = [ [], []]
```

- **lineas.json.** Lerro-grafikoa (behekoa) bistaratzeko datuak gordetzen ditu, datak eta Y datuak daude. X eta Y balio pareak daude, X data da eta Y data Y ardatzeko datua. Adierazle eta eremu geografiko bakoitzeko balio pareak dituen array bat da, Euskadi AE, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa 13 adierazleentzat.

```
var eaeline1 = [ [2005+(0/12),-1.72245262524444], [2005+(1/12),-1.57488738031834]]
var arabline1 = [ [2005+(0/12),-1.71364071738633], [2005+(1/12),-1.42099286637052]]
var bizkline1 = [ [2005+(0/12),-1.76942557291768], [2005+(1/12),-1.70103527706581]]
var gipline1 = [ [2005+(0/12),-1.52751082494989], [2005+(1/12),-1.38757293396489]]
```